

## **LEGUTIOKO HIDRONIMIA AITZAKI**

*1994.10.06*

*Patxi Salaberri Muñoa*

El presente artículo pretende mostrar el problema del, a menudo, corto camino existente entre los llamados corrimientos toponímicos y ese modo de topónimofagia —¿por qué no denominar así a este concepto de carácter también sociolingüístico, necesario para comprender y actuar correctamente en el campo de la aplicación toponímica?— cada vez más frecuente que se extiende por nuestros territorios geográficos y culturales.

Partiendo de unos casos concretos de hidronimia en el municipio alavés de Legutiano, se presentan los términos en —más o menos relativo— conflicto entre lo mostrado por el testimonio documental y lo actualmente impuesto-aceptado.

En el paradigmático caso del topónimo *Santa Engracia*, es bien sabido que lo que en un principio fue el nombre de una ermita con advocación a dicha santa, posteriormente (hace escasos doscientos años) pasó a denominar el lugar de situación de la ermita. Evidentemente no acabó ahí su andadura. El río, que apenas rozaba el lugar en unos metros, fue consignado con el mismo hagiónimo a lo largo de todo su recorrido, desplazando totalmente a la(s) denominación(es) anterior(es) empleada(s) por los lugareños.

Desde el punto de vista toponímico, sin embargo, la situación empeoró cuando hace poco menos de cuarenta años, debido a un plan de embalsamiento de aguas, se anegó una gran parte de la superficie municipal. La evidente pérdida de uso de los terrenos anegados y la siguiente desaparición de la necesidad de empleo de topónimos hasta entonces muy frecuentes se vieron agravadas por una solución administrativa que, dejando en el olvido una ingente riqueza toponímica, no dudó en denominar *Santa Engracia* a todo el amplio territorio cubierto por la masa de agua.

Como algo no siempre cualitativamente distinto de este fenómeno fagocitario se plantean los corrimientos habidos en un gran número de hidrónimos del citado municipio alavés.

Con todo, no es objeto de este artículo proponer soluciones ni opciones concretas de reacomodación toponímica, sino simplemente dar cuenta de algunas de las variantes que, por distintos motivos, han sido alejadas de sus formas primigenias, siendo a menudo sustituidas por fórmulas generales, uniformizantes y, lingüística e históricamente, menos ricas e interesantes.

\* \* \*

0. Toponimian gertatzen diren aldaketen sortzaileak maiz asko arlo horretatik kanpoko faktoreak direla aitortzea topikoa bihurtu den arren, fenomeno toponimikoa bere osotasunean eta behar bezala ulertu nahi bada, ezinbestekoa egiten da elementu eragile horiek kontuan hartzea.

Arabako Legutio udalbarrutiaren kasuan begi bistakoa da azken urteotan jasan dituen aldaketa geofisikoen pisu astuna. Udalbarrutiaren azaleraren % 18 inguru betetzen duen urtegi erraldoiaren ondoan, ohizko paisaiaren desitxuratzalea den industria-polígono luze-zabala agertzen da bete-betean. Eta honekin Toponimian eragin baloraezina duen pare bat faktore baino ez dugu aipatu.

Ez du falta ingurune fisikoa zaindu bai (!?) baina berezitasun toponimiko gehienak ezabatzen dituen golf-zelaia ere. Ezin ahaz litezke, bestalde, inguru hauetan “concentración parcelaria” izeneko lur-biltzeak leku-izenen esparrura ekarri izan dituen ondorio murriztaileak. Era berean, eta aurreko guztia gutxi balitz, badirudi ekonomikoki aberasgarriak omen diren autobideen zama paisajistiko-toponimikoa jasateaz gain, aurki autoestrata batena ere jasan beharko duela Udalerrri honek.

Baina horrekin batera bada bestelako faktorerik ere toponimiaren deskalabru honetan: udalerriko herriska bat despopulaturik geratu izana (nork izenda litzake propietatez, jakinaren gainean alegia, hutsik geratu den Nafarrate inguruko bazterrak hemendik aurrera?); Goiain herri-gunearen nortasunaren desagerpena, etab.

Hitz batez esateko, Legutiok pairatzen du gaur egun litekeen kalamitate eta lazeria toponimikorik larriena. Izañ ere, modelo ekonomikoak eta bizimodu aldatu ahala, lurrik ere beste balio berri bat hartu du eta, oro har, ez da ñabadura geo-fisikoak (arroak, latsak, harmorak, muinoak, etab.) izendatzeko premiarik nabaritzen. Beraz, ohizko ekonomiaren, hots, nekazaritza eta abeltzaintza tradicionalaren eta bertan dihardutuen desagertze prozesuarekin batera, toponimoak ere zegokien funtzionamendua galtzen hasi dira. Eta hori faktore gizatiarrak eta soziolinguistikoa aipatu gabe, ezaguna baita hondamendia areagotu egingo dela bertako ingurunearen gorabeherak egokien izenda ditzaketen hiztunak desagertzean.

Toponimia arloan, beraz, Legutioko udalbarrutia murrizketaren paradigma bihurtzen ari da, toponimiaren beharra galtzen ari den gizarte tipoaren adibidea hain zuzen. Nornahik ikus lezake dagoeneko udalbarruti guztia gero eta toponimo gutxiagorekin konformatzen ari dela, gehienak ekonomikok funtzionatzen duten lekuak adierazteko: *Santa Engracia* urtegia, ibaia, *Goiain* industrialdea, *Larrabea* golf-zelaia, *Zabalain* parkea, *Albertia* mendia, *Aiago* ...

Oso interesgarria izan arren, ez ditugu hemen aipatuko toponimo nagusi horien guztien barnean dauden —zeuden!— leku-izenak. Bainabarka bekigu, beherago aztertuko diren hidronimoez gainera, Urrunaga-Urbina-Goiain arteko triangeluan sortutako Goiain industrialdeak irentsi dituen toponimoen aipamen hutsa egiten badugu. Larria baino larriagoa bada ere, oraintsu arte bizirik iraun duen toponimia garrantzitsuenak ez bide du ezta poligono horretako kaleak izendatzeko ere balio; besteak beste, milenio baten lekukotasun idatzia duen toponimoa bera ere (*Angelua*)<sup>(1)</sup> ezabatzen da.

Aipatu kasuetan, lurrik eta gorabehera geografikoek zuten balorearekin batera joan da toponimoen beharra. Hortaz, toponimoek marka zezaketen differentzia de *facto* ez-pertinentea bihurtu da. Eta ez-pertinente izatetik inpertinentetzat hartzera iristeko dagoen Zubinoa igaro ondoren irekitzen da fenomeno toponimofagikorako atea.

1. Bainabara arazo hauetan zaharrena Legutioko hidronimiari dagokiona da ziurrenik, berrogei bat urte igaro baitira udalerri hau, plangintza hidrologikoekin bidez, agerizko mundura, mapenera alegia, iritsi zenetik. Garai hartan urtegiari jarritako *Santa Engracia* izena suertatuko zen denboraren poderioz toponimia irensketarako oinarriak ahalbidetuko zituena.

Leku-izen honek<sup>(2)</sup> XVIII. mendearen lehen erdialderarte ez du entitate handirik erakusten, ez behintzat sainduaren adbokaziorako baselizaz gainekorik. Izan ere, 1732an bi monje zituen “hermita desierto” huts bat bezala agertzen da (D. 1238-11785). Handik aurrera esparrua zabalten joango da eta hasieran ez zegozkion guneak ere barnehartuko ditu pixkanaka: “casa-venta”, “casa-horno”, “monte”, “barrio”, “puente”, erreka bera ere (“rio”) izendatzen hasi arte.

Nolanahi ere, dagokigun erreka edo ibai honek, beste elementu geografiko pertinenteek bezalatsu, bazuen lehendik ere izenik, gutxienez bi mende lehenagotik barra-barra erabiltzen zen izena gainera. Jakina,

(1) *Anguella* (952: Cart. 64, 75 or.), *Angellu* (1025: Cart. 180, 176, or.), etab.

(2) Beste aldaki batzuk: *Santangrazia*, *Santa Engrazia* (1746: LUA-L 3-2), *Santa Engrasia* (1758: LUA-L 3-2).

zail litzateke mugatzen non hasi eta norainokoa zen errealitatean izen haren erabilera, ezaguna baita horrelako entitate geografikoen izendapen bakarra berri samarra dela Historian zehar eta normalean, erreka eta ibaien kasu batipat, tokian tokiko izendapena erakutsi ohi dutela. No-lanahi ere den, lekukotasun idatziaren arabera, Urrunaga ingurutik Ur-binaraino doan ibai zatiak bederen *Mauruybaya* izena erakusten du bernalako *Santa Marina* (3) edo gaurko *Santa Engracia* delako horren aurretik. Izan ere, 1593an aurkitzen dugu lehen aldiz “rio y bado de Mauruybaya” gisa ( LUA-K 5-4, 101 or. (4) eta indarrean iraungo du izen horrek, *Mauruybayaguirre(a)* leku-izenarekin batera, XVII. mendearren erdialderarte gutxienez (1638an (5) artikulurik gabeko formapean azaltzen zaigu: *Mauruybay*), harik eta, kontrarreforma-giroaren eraginez nonbait, “mauru” eta oroimen paganoko bestelako hitzak ezabatzen hasi eta erlijio arloko formez ordezkatu arte.

Horra hor, bada, berrehun eta berrogeita hamar urtetan, berrogei bat metro karratuko “hermita desierto” bat izendatzeko toponimoa Legutio guztiko azaleraren bostenaren (zortziehun hektarea inguru!) jabe, irentsi duen toponimia zahar eta aberatsa ordezkatzen!.

2. Aberatsa izan da Legutio Udalbarrutia, eta bada oraingoz, urtegiaz landako bestelako hidronimoetan ere. Baino entitate txikia dutenak (“ur”, “iturri”, “putzu”, etab.) utzita, har dezagun adierazgarri gisa “ibai-erreka” bikotearen osagaietako bat erakusten duen toponimia. Izan ere, azterketa sinkronikoak ageri-agerian uzten du osagai bien banaketa semantikoa eta bakoitzak betetzen duen esparru hidrografiko garbia: “erreka” hitza entitate gutxiko ur-lasterrak edo latsak adierazteko erabili izan den bitartean, “ibaia” ur handietarako gorde da. Urteetan zehar, halere, uraren jario-aldatzearen eta desplazamendu toponimikoaren fenomenoa gailenduko da horietan ere, normalean hizkuntzaren bilakaerarekin aski paraleloki funtzionatzen duena. Azken bi mendeotan, esaterako, euskalkiaren erabilera “erreka” hitzak hartzen duen nagusitasunarekin (esklusibotasunarekin?) batera, “ibaia” osagaia duten hidronimoen desagerpena nabarituko da (6).

(3) *Santa Marina* eta *Santa Engracia* ibaiei buruzko informazio gehiagorako ikus 18. oharra.

(4) Legutioko Udal Artxiboan egon arren, dokumentu hau Protokolo-liburu da. Cristóbal Sáez de Viteri notariarena hain zuzen.

(5) Prot. 4.338, 8. or.

(6) “erreka” hitzak “ibaia”-ren arlo semantikoa bete duenean, ordurarte berak betetzen zuena ez da bete “lats”, “errekasto” edo beste forma batez. Klima eta landareta aldaketen eraginez nonbait, eta urtaroen arabera, uharrak baino ez dira gaur egun lehengo erreka horiek. Normalean, beraz, errekkak zeharkatzen zuen arroak –“arro” hitzak, hobe— beteko du dagoeneko hitzunentzako “erreka”

Ildo horretatik, beraz, *Becoybaya* hidronimoa (1601: Prot. 9116, 96. or.) erabat ezezaguna bihurtuko da egungo hiztunentzat. Ibai hori lekutzeko lorratz bakarra familia bereko *Bekoibaialdea* (7) toponimoaren eskuistik etorriko da: “Rio caudal que baja a Bezina” (1638: Prot. 4338, 194. or.), “camino que ban a Echebarrico errequea” (idem, 58. or.) delakoaren ondoan alegia.

Antzeko zerbait esan genezake *Betxina-n* (8) Bostibaietaren urak eta beste erreka batzuk elkartu ondoren sortzen bide zen *Ibaizarrari* dago-kionez (*Ybaysarra*, 1599: Prot. 9115, 98. or.; *Ybaizarra*, 1682: LUA-K 5-20, “rio de Bezina que por otro nombre llaman Ybaizarra”).

Gorago aipatu den *Mauruybay(a)* hidronimoaren galtze-arrazoien artean honako hau baino pisu gehiagokorik egon bazen ere, kronologikoki bat letorke beste “ibai”-dun hidronimoen desagerpenarekin.

“Ibai”-dun hidronimo hauen gaiera, dena den, “erreka” osagaiak ordezkatuko dueneko fase batetik pasatu ondoren gauzatu izan da inoiz. *Ybai zabala* izango genuke tarteko pausu hori ongi erakutsiko liguteen hidronimoa (9). 1727an agertzen da lehen aldiz (LUA-L 42-14). XIX. mendean, ordea, *Errecasabal* (1861: Hipo. 407, 158. or.) hidronimoak baztertua izango du aurrekoaren erabilera.

Guztiarekin, *Bostibaieta* dugu “ibai” osagaia duten toponimoen artean gaur arte mantendu den bakarra (10). 1749an agertzen zaigu lehen aldiz *Bostybaieta* idatzirik (LUA-L 3-2) eta normalean dermio zehatza adierazteko: “termino titulado Bostybaieta y parage de Olazarra donde se unen las aguas q(ue) bajan por dos rios”, “parage de Olazarra por otro nombre Bostybaieta” (1764: LUA-L 42-5).

ez den aldizkako ur-xirripa horren adierazteko modua. Adibide garbia da, besteren artean, beherago ikusiko den *Iramaingo erreka* hidronimoarena.

(7) *Becoyba aldea* (1632: LUA-K 3-13); *Becoybayaaldea* eta *Becoybayanaldea* (1638: Prot. 4338, 58 or. eta 194. or. kiri-kirian).

(8) Inoiz “rio” bezala agertzen den toponimo honek ondoko aldaki hauek utzi ditu: *Beçina* (1592: A. 1, 77. or.); *Bezina* (1601: Prot. 9116, 96. or.); *Veziña* (1650: A, 1); *Betcina* (1837: LUA-k 4-17); *Betcina*, *Bechina*, *Vecinal* (1884: D. 2293-1); *Betxina* ahoskatu ohi dute. Gaur egun urtegiak estalia.

(9) Antza denez (“Río que baja de Lasa”, LUA-L 42-14), gaur egun Urbinan *Bagoeta* deitzen duten erreka izendatzeko erabilia, erreka bukaera, isurtze-lekua batipat. Ikus beherago.

(10) Azken urteotako asmaketa da Urbinako futbolzelaiai jarritako *Ibaialdea* izena Ibairen ondoan egoteagatik eta, batipat, inork egindako “interpretazio eta zuzenketagatik”, jatorrizko eta tradizio handiko *Ibarbaldea* desitxuratu gel-ditu da erabat.

Aurrekoekin konparaturik, gehiago dira eta maizago aurki daitezke “erreka” osagaia (11) duten hidronimoak. Hona hemen jaso ditugunak:

*Erradura errequeta* (1770: LUA-K 11), *Herradura errequeta* (1889: LUA-L 41-7): Legutio eta Gatzaga arteko mugan dauden arro eta latsa izendatzeko erabilia, antza denez. Gaur egun hidronimo osoa ezezaguna izan arren, informatzaileengandik jasoa dugun *Erréketà-k* ingurune bere-sua adierazten duela dirudi.

Erabat galdua eta ezezaguna genuke nahikotxo dokumentaturik da-goen hidronimo hau: *Arreca artea* (1732: LUA-L 42-17); *Erreca artea* (1741: LUA-L 42-17); *Erecarte*, *Errecarte* (1884: D. 2293-1).

*Errekazabal-ek*, gorago ikusi bezala, lehenagoko Ibaizabal hidronimoaren ordezkapen funtzioa bete bide zuen denboraldi labur batean.

Gorago adierazitako arrazoia direla medio (12), dokumentuetan maiztxo agertzen den *Yramaingo errequea* (1764: LUA-K 11) hidronimoak *Iramaingo arro* (ebakera: *Irámangò / Irámingò* alternantzian) topónimoari utzi dio tokia, gaur egun “erreka”-dun forma erabat desagertua delarik.

Berdintsu esan beharko genuke ondoko honetaz ere: *Lapur herrequea* (1629: Prot. 9, 19. or.) hidronimoa mende honetan azaltzen zaigu lehen aldiz *Lapur errequeta* (1914: LUA-L 41-5) bihurturik, agian analogiatik geografikoki ia parean dagoen *Untzerreketa*rekin. Informatzaile zenbaitek *Lapurreketa* forma ezaguna badute ere, ohizko toponimo bezala *Lapurreketako arro* darabilte, “erreka” delakoaren zentzua galdua baitute dagoeneko.

Antzeko bidea jarraitu zuen behialako *Urre(i)ztiko errekea* hidronimoak ere (13). Izan ere, ezezaguna bilakatzeaz gain, aurrekoen gisara, *Urrestiko arro* aurkitu bide du ordezkatzeko formula egungo hiztunen-gan.

Bestalde, negu eta udaberri aldean Urbina-Goiaingo industrialdea autobidearen ondoan urez betetzen duen “arratoi” hidrologikoari *Içaco*

(11) Nabaria da “erreka” osagaia XVIII. mendearren bukaera aldera “erra-ka” bihurtzeko erakusten duen joera zabala. Badirudi, bestalde, bi mendeotako dela “erreketa” osagaiaren presentzia.

(12) Ikus 6. oharrean esandakoa.

(13) Hona hemen dokumentaturiko aldaki interesgarrienak: *Urextico herrequea* (1599: Prot. 9115, 148. or.), *Urresticoherrequea* (1601: Prot. 9116, 96. or.), *Hurrextuyco herrequea* (1601: Prot. 9116, 58. or.), *Urrexti herrequea* (1630: Prot. 9120, 13. or.), *Urristico errequea* (1677: LUA-K 4-25), *Urrizttico herrequia* (1683: LUA-K 5-10), *Urrutico errequea* (1786: LUA-L 3-1), *Urrustico errequea* (1790: LUA-L 3-1).

*errequea* izena eman zitzaison behiala (1601: Prot. 9116, 36. or.) (14). Gerrotzik, XIX. mendearren erdialdera baino lehenago hango soro zingiratsua izendatzen hasi zen, hiztunentzako “erreka” izan behar zenaren arrastorik gelditu ez zelako nonbait. Ahozko forma bi hauetan gelditu zaigu orduko hidronimoa: *Itxarréka*, *Itxikerréka*.

Ildo beretik, gaur arte kontserbatu da 1734ean *Chorróco errequea* (LUA-L 42-5) bezala agertzen den hidronimoa, hori bai, 1890erarte ez da *Chorrocoerreca* modura (LUA-L 41-8) azaltzen, betiere lats bat adierazteko erabilia. Leinu bereko toponimoak izango genituzke *Chorroco erreccaburua* (1765: LUA-K 11), *Chorrocoerrequeaburua* (1789: LUA-K 11), etab.

Joera berdintsua erakutsi du oraingoz erabat desagertu ez den (*A*)untzérreketa (15): *Onzerrequeta* (1790: LUA-L 3-1); *Oncerrequeta* (1830: LUA-L 1-5); *Unza errequeta*, *Unsaerrequeta* (1844 eta 1849: LUA-L 18-6); *Onzaerrequeta* (1852: LUA-L 42-19)

Ondo dokumentatuta dago egun bizirik dirauen *Etxabarriko erreka*, nahiz eta azken mendean eta gaur eguneko ebakeran *Etxabarriko erreka* etimologikoa gailentzen hasia den. *Echavarrico herrequea* (1590: Prot. 9112, 48. or.), *Essabarria errequea* (1590: Prot. 9112, 54. or.) ditugu aurkitutako formarik zaharrenak. Ildo beretik, *Echabarrico herrecabidea* (1593: LUA-K 5-4, 50. or.).

*Urriolaco errequea*, ordea, 1741ean (LUA-L 42-17) agertzen zaigu lehen aldiz, toponimoa bihurtzen hasia gainera, hau da, hidronimo hutsaren zentzua galdu hurran. Zalantza handirik gabe gaur *Pagozabal* bezala ezagutzen den errekastoa genuke Urriolako hau.

Horien guztien artean badira behin baino azaldu ez zaizkigun hidronimoak eta gaur egun ezezagunak direnak. Zenbaitetan batzuk eskribaukiko mesfidantzek ere sortarazten dituzte. Zer da, esaterako, *Echa erreca* (1894: D. 2291-1) berria (16)? *Etxabarriko erreka*-ren laburpena agian?

Fidagarriagoak dirudite, berriz, XVIII. mendean dokumentatutako *Auchoquoerrequea* eta *Zubichoeta-errequea* hidronimoek (LUA-L 42-2);

(14) Honako aldaki hauek aurki daitezke: *Ysacoerrequea* (1692, LUA-K 3-16); *Ysaco erreca* (1846: Hipo, 406, 58. or.); *Ychacorrecá* (1859: Hipo, 407, 122. or.), *Ichecoerreca*, *Isaerreca* (1849: D. 2291-1).

(15) Ebakera bikoitza gaurko erabilera: *Auntz...* eta *Untz...*, lehena nagusi delarik.

(16) Urte horretan egindako erroldak ez du, egia esan, fidagarritasun gehiegirik eskaintzen Toponomastikaren ikuspuntutik, narrazkeria handia atzematen baita jasotako leku-izen askotan.

halere, ez ditugu beste inon aurkitu, nahiz eta, bigarrenari gagozkiolarik, aipatu dokumentuan familia bereko *Çubichoeta* eta 1728an *Zubichueta* (LUA-L 42-14) ditugun arren.

Berdin-berdin esan liteke honako hauetaz ere: *Cubinoco herrequea* (17) (1593: LUA-K 5-4, 10. or.), *Herrecalaldea* (1599: Prot. 9115, 27. or.), *Errecaguesto* (1843: LUA-L 1-5), *Errequeubide* (1832: LUA-L 1-5), *Cortabarrico errequea* (1841: LUA-L 18-6), *Mendigango herrequea* (1629-30: Prot. 9120, 13. or.), *Pagaduico errequea* (1781: LUA-K 11).

Behin bakarrik agertu zaigun *Zaldoarroaco errequea* (1790: LUA-L 3-1) hidronimoari dagokionez, esan dezagun berehala utzi ziola *Salda-roa* (1746) / *Zaldarroa* (1747) toponimoari “riachuelo de”, “fuente de”, “camino de” izendatzeko ardura.

Gaur egun urtegiak estalita badauka ere, azken mendean legutiarrek *Urkiola(ko) erreka* bezala ezagutu dutena (18) *Ibarbaltz(a)* formaren il-dotik dokumentatu izan da nagusiki (19): *Ybarbalça* (1537: LUA-K 5-2), *Ybarbalç* (1545: LUA-L 42-20), *Ybarbalza* (1636: LUA-K 3-22), *Ybarbalsa* (1691: LUA-K 3-28), *Ybarbalz* (1746: LUA-L 3-2), *Ibarbals* (1756: LUA-L 3-2), *Ibarbas* (1849: Hipo. 406, 89. or.), *Ibarbaltz* (1880: B.B., 154. or.), ...

*Ciraulazgoerreca* (1545: LUA-L 42-20) hidronimoak ez bide du azken laurehun urtetan inolako presentziarik toponimian. Halere, interesgarria da hidronimo honetan ematen den gehiketa perisologikoa “la(t)z” osagaiak ur jarioa adierazteko balioa galtzen duenean, berez hidronimoa

(17) “Orga idien aitzinean” atsotitzaren irudia ematen duen hidronimo horrezaz gain, *Çubino co erreca aldea* (1638: Prot. 4338, 8. or.) ere dokumentatzen da. Hona hemen guztien erreferentzia den *Zubinoa* toponimoaren aldaki garantzitsuenak: *Çubiñoa* (1590: Prot. 9112, 104. or.), *Çubino* eta *Cubino* (1638: Prot. 4338, 10 eta 201. or. kirian-kirian), *Zubinoa* (1851: Hipo. 406, 118. or.), *Subinoa* (1855: Hipo. 407, 23. or.), *Subinua*, *Subinau* (1884: D. 2293-1) eta *Subiñua* (1894: D. 2291-1).

(18) Madoz-ek bere hiztegian Legutioko Udalbarrutiaz dioena kontuan hartzen bada, hiru ziren bertako ibaiak: “el r. *Urquiola*, y los de *Bostibayeta* y *Santa Engracia*”. Halere, Urrunagaz, Urbinaz eta Legutioz banan-banan ematen duen informazioaren arabera, argi dago *Urkiola* izeneko ibaiaren iparraldeko zatiari *Ibarbalz* deitzen ziotela (Legutio herrian horrela izendatzen zutelako, jakina); baina gaur egun urtegiak estalita dituen lurralte eta desagertutako baseliza baten ondotik aurrera *Santa Marina* deitzen ziotela ibaiari (Urrunaga eta Urbinakoek horrela izendatuta, ziurrenik). Ohar bedi, gorago esan duenaren kontra (*Santa Engracia* dela Udalbarrutia zeharkatzen duten erreketariko bat alegia), *Santa Engracia* ibaiak *Santa Marinaren* ibaiadartzat hartzen duela, azken hau baita, berak esanda, Urrunaga eta Urbinatik igaro dena.

(19) “Corriente negra” bezala interpretatzen du Fitak (1883, 233. or.).

zenari “erreka” eransteiko beharra azaltzen da. Egun *Ziraolatza* toponimoak (20) bizirik dirauen arren, bertatik igaro den latsak nagusitu den beste toponimo bati zor dio izena, *Alduarte* (21) delakoari hain zuzen.

Aurrekoarekin loturik, aitor dezagun udalbarruti honetan “lats” / “latz” osagaia erakusten duten toponimoen urritasuna. Nolanahi ere, ondoko guztien sortzaile gaur egun *Latxe* ahoskatu ohi den horren aitzindaria genuke. Erantsi behar da Legutioko Udalbarrutian forma bereko toponimo bi aurkitzen direla; baina, Urbina aldekoa XVIII. menderarte azaltzen ez den bitartean (22), Elosu aldekoa aspaldidanik dokumentatzen da: *Lasa* (1590: Prot. 9112, 15. or.), *Lassa* (1599: Prot. 9115, 75. or.), *Lache* eta *Lacha* (1862: Hipo. 407, 188. or. eta 191. or. kirian-kirian). Baseliza bat izendatzen bide zuen *Santa Pia* (1723: LUA-L 42-14) toponimoak azken mende t’erdiān errekasto bati ere eman izan dio izena. Hidronimo kutsua galdu duen *Latxe* honek adierazten zuen latsa izendatzeko agian? Era berean, Elosukoaren inguruokoak izan ziren, ziurenrik, behin baino ikusi ez dugun *Laskorta* (1545: LUA-L 42-20) eta maizago azaltzen den *Laspurio* (1677: LUA-K 1-25).

Urbina aldekoa bide da, ordea, *Laspuru* (1677: LUA-K 2-2), *Lasprua* (1692: LUA-K 3-16) toponimoa, dokumentuen arabera hango Larra-bea ondoan kokatzen baitzen, hain zuzen ere *Laspagoeta* (23) (1599: Prot. 9115, 87. or.) hidronimoak izendatzen zuen lekutik gertu (24). Gaur egun *Bagoeta* (25) milurteko toponimoaren bidez izendatzen dira latsa eta lurralte guztia. Nolanahi ere, aipagarriak iruditzen zaizkigu gorago aipatu *Ibaizabal-ekin* zerikusi susmagarria dutela diruditen *Latxi(ra)zabal*

(20) Informatzaileek *Siolatz/Siolátz* (gazteenek *Siólar*) ahoskatu ohi dute honela dokumentaturik dagoen toponimo hau: *Ziraolaz(a)* (1755: LUA-L 3-2), *Sirao lasa* (1758: LUA-L 3-2), *Ziraolatza* (1773: LUA-L 3-2), *Siraolaza* (1842: LUA-L 18-6), *Siraulaza* (1890: LUA-L 41-8), *Siolaza* (1884: D. 2293-1), *Siolach* (1946: LUA-L 41-25).

(21) Hiztunen ebakera *Aldú(i)xartè/Aldoiárte/Aldeíárte* alternantziekin agertzen da.

(22) *Lasa* (1727: LUA-L 42-14), *Laza* (1749: LUA-L 3-2), *Lace* (1831: Prot. 9818, 36. or.), *Laz* (1832: Prot. 9818A, 86. or.), *Lacha* (1843: Hipo. 406, 29. or.), *Lase* (1852: LUA-L 42-19), *Lache* (1862: Hipo. 407, 237. or.).

(23) Beste aldaki batzuk: *Lazpagueta* eta *Laspagueta* (1749an eta 1755ean kiri-kirian: LUA-L 3-2), *Lazpagoeta* (1797: LUA-L 3-1).

(24) Behin baino gehiagotan “*Laspagueta o Laza*” (1749: LUA-L 3-2), agertuko da, *Latxe/Latsa* toponimoek adierazten dituzten latsa eta lurraldea adieratzeko alegia.

(25) *Beguheta* (952: CSM. 48, 58. or.; Ubieto Artetak *Beguhera* irakurtzen du: Cart. 64, 75. or.), *Bagoeta* (1025: CArt. 180, 176. or.), *Bagueta* (1831: Prot. 9818, 35. or.), *Pagüeta* (1847: Hipo. 406. 67. or.), *Bagüeta* (1849: Hipo. 406, 98. or.), *Baueta* (1894: D. 2291-1).

*Hipo.:* A.H.-ko Hipoteka-liburuak. Ondoko zenbakiek liburu-hatza adierazten dute.

*LUA:* Legutioko Udal Artxiboa.

—LUA-K: Kutxetan dauden dokumentuak. Zenbakiak Artxiboak era-biltzen dituenak dira.

—LUA-L: Lokari edo paper sortatan daudenak. Zenbakiak Artxiboak darabiltzanak dira.

*Madoz:* Pascual Madoz, *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madrid, 1845-50.

*P.A.:* Arabako Probintzi Artxiboa.

*Prot.:* A.H.-ko Protokoloak. Ondoko zenbakiak Artxiboan jarritakoak dira.

*TAV:* Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Minotauro. Madrid, 1964.

ahozko forma eta beronen oinarrian dauden aldaki dokumentatuak: *Lase ó Eivizabal* (1852: LUA-L 42-19) eta *Lache e Izabal* (1954: LUA-L 41-25). Izan ere, balizko \**Latxe-lbaizabal* toponimoak, gaurko erreka hasierako eremua baino, ez ote zuen garai batean erreka guzta, goitik behera, (eta inguruko lurra, jakina) adieraziko?

*Laserabidea* eta *Lasqueta* (1638: Prot. 4338, 10. or.) eta *Lazecoestra* (1672: LUA-K 4-17) behin baino ez zaizkigu azaldu dokumentaturik.

\* \* \*

3. Konklusio gisa, azkenik, gogoratu nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalaren urritzearekin batera, lurrarekiko interes faltak eta, neurri handi batean, hiztunen zabarkeriak berak berezko hidronimoak erabat galtzeko arriskuan jartzen dituztela, haien ordez formula errazenetara jozen baita gero eta maizago, toponimo nagusienetara alegia. Eta hau, erantsi beharrik ez dago, toponimia orokorra murrizten hasteko lehen pausua baino ez da.

Horrela ulertzen da, esate baterako, gaur egun Legutioko informazioa fidagarrienetariko askoren hidronimoak honako hauetara mugatzea: *Santa Engracia, Gomilazburu, Boleromiña, Txorrokoerreka, Basobaltz, Aldeiarre, Kortatxi, Iturrigorri, Itesasi, Iriamingo arro, Bostibaieta, Pagozabal, Tantairu, Telleria, Zerkoste, Etxebarriko erreka* eta *Bagoeta*.

## LABURDURAK ETA BIBLIOGRAFIA

- A.: Gasteizko Apezpikutegiko Artxiboko *Cofradía de Santiago*. Año 1647-1747.
- A.H.: Artxibo Historikoa. Gasteiz.
- B.B.: Ricardo Becerro de Bengoa, *Descripciones de Álava. Libro inédito escrito el año de 1880. Prólogo e índices por Angel Apraiz*. Real Ateneo de Vitoria. Vitoria, 1918.
- Cart.: Antonio Ubieto Arteta, *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Instituto de Estudios Riojanos, Monasterio de la Cogolla y Anuario. Valencia, 1976.
- CSM.: Serranoren Kartularia. TAV-etik jasoa.
- D.: P.A. delakoan darabilten dokumentu-zeinua. Ondoko zenbakiek dokumentu-hatza adierazten dute.
- Fita: Fidel Fita, "El vascuence alavés anterior al siglo XIV", *Boletín de la Real Academia de la Historia*. Madrid, 1883.

## I. ERASKINA

J.L. Lizundia Askondo jauna  
Euskaltzaindia  
Bilbo

Agur t'erdi,

Atsegina handiz jaso dut irailaren 26an bidali zenidan gutuna eta ahalik lasterren eta egokien erantzun nahi nieke bertan egiten zenizkidan galderei.

Lehenik eta behin, aitortuko dizut toponimiaren arlo irristakor honetan denbora dexente eman ondoren, ez dudala gaur egun neure burua proposamen zehatzak egitiko moduan ikusten. Areago: horretarako inoiz baino ahalmen gutxiago dudala esango nizuke, agian beraietan gehiegi ez sinestera iritsi naizelako. Besteak beste, honelakorik duela zortzi bat urte aurkeztua dudalako proposamenak ontzat har zitzaketen erakundeeitan (udaleko barne), ondorio(-ez)ak nabarmenegiak direlarik.

Horregatik, artikuluaren erdarazko sarreratxoan esaten nuen bezala, ez zen eta ez da “objeto de este artículo proponer soluciones no opciones concretas de reacomodación toponímica”. Izan ere, egoeraren ikuspegi orokorra baino ez nuen eman nahi izan. Eta beraiaz jarria zegoen harako hura.

Nik ez, ez daukat arazorik urtegiari *Santa Engracia* deitzen jarraitzeko. Ezta behiala egokiagoa izan zitekeen beste bat erabiltzeko ere. Artikulan nioen bezala, benetako arazoa sortzen ari diren gainerako konfigurazio erraldoi guzti horien izendapenerako erabil daitezkeen formula zabar, erraz-zale eta toponimiaren senaren aurkakoetan ikusten dut.

Bestelako iraultzetan ez bezala, toponimikoki finkatuta dagoena aldatzen saiatzea (batipat kartografian, bibliografian eta, ondorioz, burmujinetan luzaroan benedikatuak izan direnean) latza bezain antzua liteke. Errazago litzateke inolako benedikaziorik jaso ez duena bideratzea.

Ildo horreta, estropada gunearen bataioa genuke erdi eginkizun. Oker ez banago, *Zaldarroa* izena jarri diote gune horri edo, behinik behin, eraikuntza eta kaitik antzekoa dagoen lekuari. Nire ustez, eremu lehorri dagokionez, izen hori bat dator azken urteotako erabilerarekin.

Egia da, hala ere, estropada gunea lehengo ibaiak edo errekkak sortu zuen ibarraren gain-gainean dagoela. Eta horri bai, horri *Ibarbaltz(a)* dei-

tu izan zaio duela gutxirarte. Gainera, bera da dokumentatutakoena artean zaharren(etaliko)a eta lekuari tinkoen lotzen zaiona.

Gauzak bideratzen hasteko proposamena izan daiteke.

Adeitasunez,

Gasteizen, 94eko urriaren 6an

Patxi Salaberri Muñoa

## II. ERASKINA

### JUNTAS Y REGIMIENTOS DE BIZKAIA



### BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Regimiento de villas e ciudad.

En la villa de Guernica, a cinco dias del mes de junio de mill e quinientos e sesenta e nuebe años.

**179.25.** Yten, se suplique a su magestad compela a la probinçia de Alaba y villa de Villarreal agan el camino de entre Ochandiano y Villa-real en *Ybarbalça* y sobre los caminos de la juridicion de Ayala que son de Vilvao para Hurdona se notifique la probision que para ello ay a los de Ayala y se pida a su magestad su cunplimiento y se de por ynstrucion esto al que ubiere de yr a corte, y esta diligencia hagan la ciudad de Horduña y villa de Durango questan en comaneza.

(Fol. 60<sup>r</sup>). (Cruz). En la vila de Bermeo, a beynte dias del mes de jullio de mill e quinientos e sesenta e nuebe dias.

**3.13.** (*Al margen: Caminos*). 13. Yten, que la çiudad y billa de Hurduña y Durango hagan dilligençia con la Probinçia de Alaba y billa de Billareal para que hagan los caminos de *Ybarbalça*, entre Ochandiano y Billareal y el camino de Ayala, que ba de Bilbao para Hurduña y para esto, se les notifique la probision que ay y se pida a su magestad el cunplimiento della; y esto se de por ystrcion al que ubiere de yr a corte.

#### 49.10. Poder para los de Ochandiano.

Otrosi, por Gaspar de Usaola, en nonbre del concejo de la villa de Ochandiano, que es en el dicho Senorio de Vizcaya, pidio por una petiçion que, atento que la dicha villa tenia una sentencia que dieron a los ocho de mayo del ano de mill y quattrocientos y quattro el doctor Gonçalo Moro, corregidor y beedor que a la sazon fue del dicho Senorio y en sus Encartaciones, con los alcaldes del fuero que en el dicho Senorio a la sazon habian, entre la dicha villa y los duenos de las herrerias de Gordobil, juridicion que al presente es de la dicha villa de Ochandiano, y el concejo y vezinos de la villa de Villareal de Alava y sus aldeas sobre y en razon del termino y jurisdiccion y aprobechamientos y pastos y herbajes de cierta parte del monte de *Ybarbalça*, de que en la dicha sentencia se haze mincion y en ella se declara, de cuyo treslado simple hizo demostraçion; y por quanto por perteneçerle a la dicha villa de Ochandiano el dicho termino y su uso y aprobechamiento// (fol. 240r.) y juridicion, y bien asi al dicho Senorio y Corregimiento del la dicha juridicion, por estar yncluso el dicho termino dentro de el, y sobre ello tenia la dicha villa pleito pendiente con la dicha villa de Villarreal en la Audiencia Real de Valladolid, y la dicha juridicion no tan solamente le tocava e yncunbe a la dicha villa pero a todo el dicho Senorio generalmente, por no perder su juridicion; por lo qual pedio se le diese poder para poder defender la dicha juridicion del dicho Senorio con la que tiene la dicha villa y el aprobechamiento del dicho termino, pues de derecho le pertenece y es suyo; y de ser ello asi hizo demostraçion de cierto parecer de letrados que reside en la dicha Audiencia Real.

#### 28.

Regimiento general de billas e çiudad e Tierra Llana del Señorio de Biscaya.

Estando en la yglesia de Nuestra Señora la Antigua de Guernica ayuntados en regimiento general de la Tierra Llana e billas e çiudad deste muy noble e leal Señorio de Biscaya la justicia y Regimiento del dicho Señorio e los procuradores particulares de las dichas villas e çiudad, despues de aber tenido y acabado su junta general so el arbol de Guernica, donde sienpre e continuamente han hecho los caballeros, es-

cuderos e hijosdalgo y republicas del dicho Señorio sus juntas generales, oy, a catorze dias del mes de junio de mill e quinientos y setenta e cinco anos, especial y nonbradamente se ajuntaron a tener el dicho regimiento general los ylustres senores lienciado Gines de Perea, corregidor y bedor del dicho Señorio de Bizcaya por su magestad, e don Martin de Abendano e Graçian de Mençeta, diputados generales del.

**28.11. Poder para lo del pleito de entre Ochandiano y Villarreal y sobre el termino de *Ybarbalc*.**

Otro sy, por Gasar de Usaola, en nombre del (*tachado: a villa*) concejo de la villa de Ochandiano, ques en el dicho Señorio de Vizcaya, se pedio por una petición que, atento que la dicha villa tenia una sentencia que dieron a los ocho de mayo del ano de mill y quatrocientos y quatro (*tachado: por*) el doctor Gonçalo Moro, corregidor y bedor que a la sazon fue del dicho Señorio y en sus Encartaciones, con los alcaldes del fuero que en el dicho Señorio a la sazon abian entre la dicha villa y los duenos de las herrerias de Gordobil, juridicion que (*tachado: al presente*) es de la dicha villa de Ochandiano, y el concejo y vezinos de la villa de Villarreal de Alaba y sus aldeas sobre y en razon del termino y juridicion y aprobechamientos y pastos y herbajes de cierta parte del monte de *Ybarbalça*, de que en la dicha sentencia se aze mencion y en ella se declara, de cuyo treslado synple hizo demostracion; y por quanto por pertenescerle a la dicha villa de Ochandiano el dicho termino y su huso y aprobechamiento y juridicion, y bien ansy al dicho Señorio y Corregimiento del la dicha juridicion por estar yncluso el dicho termino dentro en el, y sobre ello tenia la dicha villa pleyto con la dicha villa de Villarreal en la Chançilleria Real de Valladolid, y la dicha juridicion no tan solamente le tocaba e yncunbia a la dicha villa pero a todo el dicho Señorio generalmente, por no perder su juridicion; por lo qual, pedio se le diese poder para poder defender la dicha juridicion del dicho Señorio con la que tiene la dicha villa y el aprobechamiento del dicho termino, pues de derecho le pertenesce y es suyo, y de ser ello asy yzo demostracion de cierto parescer de letrados que resyden en la dicha Audiençia Real.